


COVID 19 KONTINGENTZIA PLANA

Gasteiz
Sustapen
Ekonomikoa

ehbildu



Aurkibidea

1. Sarrera	4. orrialdea
2. Covid 19 aurrekontuak	6. orrialdea
3. Merkataritza, Ostalaritza eta Turismoa	7. orrialdea
5. Kultura	11. orrialdea
6. Enplegua	12. orrialdea

**egiteko
beste
modu bat**

COVID 19 Kontingentzia plana

SUSTAPEN EKONOMIKOA

1. Sarrera

2020. urtea hasi zenean pertsona, kolektibo edo erakunde bakar batek ere ezin zuen aurreikusi gaur egun bizitzen ari garen egoera. Martxoan, Covid-19 gaixotasunak eragin duen pandemiak behartutako osasun krisiaren deklarazioa dela-eta, beharrezkoa izan zen larrialdi neurri ugari hartzea. Gobernu edo erakunde bakar batek ere ezin zuen egoera hori aurreikusi. Haatik, lehen kolpe horretatik hilabete asko igaro dira. Ondo egindako gauzetatik eta egin ditugun akatsetatik ikasi dugu, baina gaur egun ezin dugu justifikatu Gasteizko udal gobernuaren inakzioa edo aurreikuspen falta.

Euskal Herria Bilduk jarrera proposatzailea izan du hilabete guzti hauetan. Lankidetzaz eskaini dugu, ekimenen bidez ekarpenak eginda, eta ildo horretan jarraituko dugu, pertsonen egoerak kezkatzen gaituelako, udalerriaren egoerarekin kezkatuta gaudelako.

Osasun krisia hasi zenetik elkarlanean aritzeko espazioak proposatu ditugu Gasteizko eragile politiko eta sozioekonomikoen artean. Hilabeteak daramatzagu lan mahai baten beharra, modu koordinatuan eta bat eginda, kontingentzia plan bat adosteko oldarraldi berriei eta krisiarne ondorioei aurre egiteko. Erantzuna beti izan da ezezkoa.

Orain egitea dagokigu. Ez dago aitzakiarik, eta Gasteizko udal gobernuak jarraitzen du Kontingentzia plan bat izan gabe gaixotasunaren bigarren olatuari eta pandemiari lotutako bigarren oldarraldiari aurre egiteko, txerto baten bidez bizitzari berriro heltzeko aukera egongo den arte.

EH Bildu Gasteizek konpromiso bat du herritarrekin. Ezin dugu inprobisatzen jarraitu, eta hiriko eragile sozioekonomikoen erantzunik gabe utzi. Merkataritza eta ostalaritza, turismoarekin batera, sektore kaltetuenak dira. Bezeroak zaintzeko ardurak gidatuta, pertsiana jaisten lehenak izan ziren, eta euren

jarduera ohikoa berreskuratzeko zailtasun handienak dituzten sektoreen artean daude. Ziurgabetasun egoera handia dute, gainera, araudia etengabe aldatzen ari delako, osasun krisiaren garapenak behar tuta.

Beharrezkoak diren planak izateko lan egitea dagokigu. Hori dela eta, Kontingentzia plan bat aurkeztuko dugu udalerriko eragile ekonomikoek eta zerbitzu emaileek behar dituzten erantzunak emateko.

Arduraz jokatu behar izan dugu. Ostalaritzak eta merkataritzak jarrera erakusgarria izan zuten, zaintzak lehenetsi zituzten hiritarren mesederako. Orain erakundeei dagokie erantzun hori bultzatzea. Ezin dugu inprobizazioaren bidetik jarraitu, autonomoen, enpresari txikien, bizkarrean utzita euren negozioen pertsiana irekitzeko ardura, dituzten mugak eta beldurrak kontuan hartu gabe.

Ilido argien bidez lan egitea dagokigu orain, Kontingeniz planen bidez berriro ere geure udalerriko kaleak eta negozioak berriro argieki eta pertsianak jasota ikusteko.

Covid-19k inoiz ez bezalako osasun eta sozioekonomia krisi bat sort du, baina hiria berreskuratzeko aukerak bilatzeko unea da:

Produkzio eta kontsumo eredu berriak bilatu behar dira

Tokiko kontsumoaren aldeko apustu erreala egi behar da

Enplegua babestu behar dugu, eta alor horretan murrizketa gehiagorik ezin da egin

Hiriaren irudi positiboa eman behar dugu, segurua, herritarrekin eta eragile sozioekonomikoen osasunarekin konpromisoa duena

Udallerri erakargarri eta dinamikoa eskaini behar dugu

1. Covid 19 aurrekontuak

Gasteizko EH Bilduren aburuz, udalak egoeraren irakurketa orokor bat izan behar du. Ezin gara geratu azken hilabeteotan ikusitako murrizketekin eta gastu atxikipenekin konformatu. Udal gastua berrikusi behar da, bai, baina baita diru sarrerak ere bai. Ezin ditugu 2008ko krisiaren neurriak errepikatu, neurri austerizidak.

Aparteko egoera bizi dugu, ezohiko neurriak hartzea eskatzen duena, eta, horretarako, finantzaketa beharrezkoa da. Gastu atxikipenek eta murrizketek ez dute soilik hiriaren bizitza mugatzen, aurreko krisialdian ezarri eta funtzionatu ez duten jarrerak dira. Ezin dugu orduko akatsak berriro errepikatu. Euren negozioen pertsiak egunero ireki nahi dituzten horiei laguntza eta babes eman behar zaie. Hiria dinamizatzea beharrezkoa da.

Horregatik, gutxienez bost milioi euroko funts bat eratzea beharrezkoa da, hiriari behar duen dinamismo hori berreskuratzen laguntzeko.

Akordioak lortzea ezinbestekoa da, beharrezkoak diren aurrekontu egokitzapenak egin eta funts hori martxan jartzeko, pandemia honek ekarri dizkigun osasun, gizarte eta ekonomia krisiari aurre egiteko. Egiteko beste modu bat beharrezkoa da.

Zertarako da beharrezkoa Covid-19 funts hau?

- Espazio publiko berrantolatzeke
- Gasteiz adimendu baterako urratsak egiten setgitzeko, trantsizio digitalaren bidez
- Pandemiak gehien kaltetu dituen sektoreei bereskuratzen laguntzeko

Jaiki Gasteiz proposamena aurkeztu genuena esan genuen, eta orain errepialtu beharko dugu.

Gasteizko Udalak beharrezkoak diren diru sarrerak eskura eduki behar ditu, aurrez aurre dugun erronkaren neurrira dagoen erantzuna eman ahal izateko. Arabako Foru Aldundiari exijitu behar diogu toki erakundeei Fofelen diru banaketan ezarri nahi dizkien murrizketak bertan behera uzteko. Inbertit-zea dagokigu, ez murriztea.

3. Merkataritza, ostalaritza eta turismoa

Merkataritzaren eta ostalaritzaren egoerak kritikoa izaten jarraitzen du pandemiaren ondorioz. Araudi aldaketa etengabeak, irizpideen joan-etorriek, aforo mugek, eta kontsumo joera berriek bi sektore hauen egoera ahuldu dute.

Bi sektoreen arazo handienetako bat da aldaketa horien aurrean dagoen informazio eta lidergo falta da. Desekalatze fasean sartu ginenean sektoreari arreta zuzena emateko udal bulego bat sortzea planteatu genuen. Udalbatzara eraman genuen eskaera. Hilabeteak igaro ahala, bulego hori gero eta beharrezkoagoa da. Banakako arreta emateko espazio bat, protokoloen ezarpena azkartzeko, badaezpadako itxiera posibleen aurrean neurriak hartzeko. Azken finean, arreta zuzena eman eta erakundeak osasun protokoloak lideratzeko espazio bat.

Bulego honek ez du soilik arreta zuzena eskainiko. Horrekin batera, sektoreei zuzendutako beste neurri batzuk hartuko ditu bere gain:

- Orientazio juridikoa emateko zerbitzua
- Esparru horietan aritu nahi duten enpresari berriei aholkularitza ematea
 - Covid-19k sektore horietan dituen ondorioei jarraipena egin, alor horretan premiazko neurriak hartu ahal izatea ahalbidetzeko
- Osasun krisiak eragin dizkien kalteen aurrean finantzaketa, dirulaguntzak edo babes neurriak lortzeko laguntza ematea
- Osasun eta ekonomia alorretan ematen diren aldaketen aurrean gidaritza eskaintzea

Eraldaketa digitala bultzatzea.

Urteak dira merkataritzari eta ostalaritzari on-line formakuntza eskaini aiel, baina ondoren ezin diote jarraipenik edo ezarpen praktikorik eman euren negozioetan: denbora falta, euskarri informatkoen gabezia, beharrezko eguneratzeen zailtasunak... Euskal Herria Bilduk proposatzen du merkataritza txikiari eta ostalaritzari lan hori egitea erraztuko dion on-line plataforma bat eratzea, behar dituzten tresnak bermatuta.

Euskal Herria Bildutik proposatzen dugu kontsumo jooera berrietan bilatzea sektoretik mundu digitalera jauzi emateko aukera. Eraldaketa horri aurre egiteko aholkularitza eskatzen duten enpresa guztiei digitalizazio plan bat egiten lagunduko zaie.

Udal faktura epeen murrizketa pandemiak eragi handiena izan dituen alorretan. Sektoreari fakturak ordaintzeko prozedura ahalik eta azkarrena izan behar du, udalarekin batera jarduerak egiten dituztenean beharrezkoa duten kaudimena bermatzeko.

Denda eta negozioak egokitzeko laguntzak Beharrezkoa da pandemiak behartu dituen distantzia sozialari eta segurtasunari lotutako moldaketak egiten laguntzeko dirulaguntza deialdia.

- MERKATARITZA

Urteak dira merkataritza egoera berezki gordina igarotzen ari dela, geure hirian hartutako hainbat erabaki politikoren ondorioz: azalera handien eraikuntza, internet bidezko erosketaren hazkundera, hiriguneko gainbehera, bukaerarik ez duten proiektuak, etab. Horri guztia gehitu zaio Covid-19k eragin duen egoera, eta horrek eragin dituen mugimendu eta aforo mugak.

a- SALTOKIEN MAPA EGUNERATUA

Konfinamendua indarrean egon den bitartean, merkataritza hurbilak bere balioa eta kalitatea agerian utzi ditu. Publizitate kanpainarik onena izan da arreta hurbil hori, eta baliatzea dagokigu. Tokiko merkataritza hurbil horren mapa eguneratu bat eskaini behar dugu. Plataforma interaktibo bat proposatzen dugu merkataritza motari, eskaintzen dituen zerbitzuei, edo banaketa aukerei buruz informazio eguneratua emateko, hiritarrei auzoko kontsumo gertukoaren informaziora sarbide zuzen eta egokia bermatuta.

Era berean, kanpaina berezituak egingo dira, hiritarrei errazteko kontaktua izatea premizko ondasun eta zerbitzuak eskaini, eta etxerako arreta ematen duten negozioekin. Horrela merkataritza gutun dinamikoa eta etengabe eguneratua sortuko litzateke. Era berean, marketplace bat eratzea planteatzen dugu, toikiko merkataritza sare birtual bat, udalerriko denda era zerbutzu emaileekin, antzeko tresnak garatzen ari diren sektoreko elkarteekin elkarlanean.

b- MERKATARITZA BERRAKTIBATZEKO BONUAK

Gure Jaiki Gasteiz larrialdi planaren barruan jasota genuen bonu programa propio bat martxan jartzeko beharra, 1,25 milioi euroekin, udalerriko ostalaritzari eta merkataritzari bultzada emateko. Ikusi dugu, krisiak luzatu ahala, nola aukerak galtzen joan diren merkatarientzako. Berriro irekitzeko prozesuari ekin zitzaion muga eta zalantza askorekin, udan aukera handirik ez zen egon berpizteko, eta ez da egon beherapen normalizatuak egiteko modurik.

Badakigu beste programa batzuk martxan daudela kontsumoa animatzeko helburuarekin. Ongietorriak izan daitezela horiek guztiak, baina uste dugu Gasteizko Udalak bat egin behar duela ekimen horiekin programa propio baten bidez bat egin behar duela, geure udalerriko tokiko merkataria eta ostalariak lagunduko dituen.

c-. ESPAZIO PUBLIKOAK MERKATARIENTZAKO

‘Gasteizko Kaleak Ireki’ EH Bilduren proposamena da hiriko espazio publikoa, espaloiak, eta errepideak, pertsonen zerbitzura jartzeko, mugikortasun jasangarri eta osasuntsu bat bultzatuta.

Espazio publikoaren berrantolaketa horrek balio behar du baita ere merkataritza eta zerbitzu sektoreari aukera berriak eskaintzeko. Saltokietara doazen pertsonen segurtasuna eman behar zaie, eta, horrekin batera, neurri alternatiboak gauzatu behar dira kontsumoa erakartzeko. Helburu hori errazteko asmoz, espaloi eta bestelako zonalde batzuk, plazak edo aparkalekuek kasu, eskainiko dira merkatuak egiteko edo egun zehatz batzuetan produktuak eskaintzeko .

d- ZERGAK ZATIKATZEA GALERAK IZAN DITUZTEN ENPRESENTZAKO

Ezohiko neurriak hartzeko momentua da. Hori dela era, proposatzen dugu fakturazioa %40 edo gehiago murriztu zaizkien negozioek zergen ordainketa zatikatzeko aukera izatea.

- OSLATARITZA

a- ESPAZIOEN ERABILERA BERRIA.

Deseskalatze faseari ekin behar zitzaion momentuan, ‘Gasteizko Kaleak ireki’ proiektua mahai gainean jarri genuen. Argi dugu espazio publikoaren erabileran lehentasuna pertsonen dutela. Baina ulertzen dugu aparteko egoera baten aurrean, terrazak jartzeko ordenantza malgutzeko aukerak aztertu behar direla, lehentasun hori galdu gabe. Hiru metro baino gehiago dituzten espaloi eta ibilgailu pribatuaren aparkalekuetan terrazak jartzea proposatu dugu, krisiak behartutako segurtasun eta distantzia neurriak betetzen direla bermatzeko.

Azken hilabeteotan Euskal Herria Bilduk terrazak paratzeko ekimenak erraztea planteatu du, beti ere osasuna babesteko neurriak zorrotz beteko diren bermea izanda.

b- UDAL KOORDINAZIOA INDARTZEA

Deseskalatzeko neurriak iritsi zirenean, ikusi genuen udaleko sail batzuk gainezka egin zutela. Ezinbestekoak eta ostalaritzan eragin zuzena duten neurriak garaiz hartzen ez dituzten sailak: terrazentzako lizentzia probisionalak, gaueko ostalaritza baimena egunerako moldatzea, edo egokitzapen nahiz obra txikien tramitazioa. Guzti hori dela eta, ostalaritzatik egiten diren eskaerak tramitatu eta gauzatu behar dituzten sailak indartzea beharrezkotzat jotzen dugu.

c- NEGOZIOEI ESTIGMARIK EZ JARTZEKO PROTOKOLOAK

Beharrezkoa da ostalaritza pairatzen ari den estigmatizazioarekin eta kriminalizazioarekin amaitzea, langile edo bezero baten covid-19 positiboa gertatzen den aldietan. Diskriminazioa dago zigilua ezartzerakoan, eta atzerapenak daude desinfektatzeak eta testak bete diren egiaztatzerakoan. Ostalaritza mahaiak lideratutako protokolo bat martxan jartzea proposatu dugu. Gune horretan sektoreak parte-hartze zuzena izango luke, ostalaritzari dagozkion ekintzak erabaki eta martxan jartzeko.

TURISMO

- TURISMO ENPRESEN UDAL WEBGUNEA

Espazio bat eta udal webgunetik sarbide bat eskainiko zaie azken bi urteetan turismorekin lotutako zerbitzuak eskaini dituzten profesionalei eta enpresei. Modu horretan, doako erakuslehi bat izango dute euren jarduna ezagutarazteko, eta hiritarrek nahiz bisitariak euren lanari buruzko informazio zuzena eta eguneratua eskuratu dute.

4. KULTURA

Kultura premiazko ondasuna da. Konfinamenduak berriro utzi du agerian kulturak duen balioa, eta geure udalerriko kultur sektoreak berariazko babes bat eskatzen du. Guztiontzako segurua den kultura baten alde, neurriak hartu behar dira:

Kultur produktuak erosteko bonuak. Beharrezkoa da hiritar guztiei kulturarako sarbidea erraztea. Kultur produktuak erosteko edo jarduerak ikusteko 400.000 € dirulaguntza programa proposatu dugu.

Tokian tokiko kultura babestea dagokigu. Artea Km 0 ekimena aurkeztu dugu, 250.000 euroekin, Gasteizko kultur erakundeei zuzenduta, eta beste hainbesteko dirusail bat eskaintzea sortzaileei bekak emateko.

5. ENPLEGUA

a. AUTONOMOEI ETA ENPRESA TXIKIEI LAGUNTZAK

Jaiki planean esaten genuen ezinbestekoa zela pandemiaren erruz jarduera nabarmen murriztu edo bolada batez ateak itxi behar izan dituzten autonomoei eta enpresa txikiek laguntzak emateko plan bat indarrean jartzea. 2,5 milioi euro horretara bideratzea beharrezkoa iruditzen zaigu.

b. KALTETUTAKO ENPRESEI ENPLEGUA EUSTEN LAGUNTZEA

Osasun krisia dela-eta, euren fakturazioan %40 edo gehiagoko galerak izan dituzten enpresa eta negozio txikiek erregulazioak gaur egungo baldintzetan egiteko aukera galtzen dutenean, laguntza ildo bat eskainikoi zaie enpleguari eusteko.

c. FORMAKUNTZARI BULTZADA

EH Bilduk proposatzen du gaur egun Gasteizko Udalak modu telematikoan eskaintzen duen e-learning formakuntza zabaltzea. Gaur egungo ziurgabetasun egoeraren aurrean, on-line udal formakuntzaren doakotasuna buktzatu behar da, eta egungo baldintzak malgutu behar dira bi ikastaroaldi berean egitea baimenduta, eta ikasturte bakoitzeko gehienez egin daitezkeen ikastaroen kopurua handituta.

